

5 erreminta. Ikasleak. Familiak

1. partea: DIAGNOSTIKOTIK INPLIKAZIORA: non gaude.

(Esparruak: Partaidetza, emozio, sentimendu eta identitatea, irakatsi eta irakasteko prozesuak eta irakaslan-estiloa)

5.1) Ondoko baieztapen hauek 1etik 4ra baloratu ikastetxearen egoerari buruz hausnartuz.

	PARTAIDETZA	4	3	2	1	PARTAIDETZA
19	Ikastetxean saiatzen gara gelako asanblada, geletako ordezkarien batzordea, AZP, familia, irakasle eta ikasleen ordezkariak ikastetxea kudeatzeko organoetan parte-hartze aktiboan izan daitezzen zaintzen eta indartzen.					Geletako ordezkarien batzordea, familia, irakasle eta ikasleen ordezkariak partaide izan daitezzen lan-zama gehiagarri gisa hartzen da ikastetxea kudeatzeko organoetan, eta ez zaio ia inori interesatzen.
20	Ikastetxean komunikazioa erraza da, asmo argiak dauzkagu eta elkarrizketarako pertsona hurbilak gara.					Ikastetxe honetan, pertsonek arteko harremanetan gardentasun falta, kexa eta egoskorria nagusitzen dira.
21	Ordezkaritza-sistemak, informazio-trukea eta komunikazio prozesuak eraginkorrak dira ikastetxean.					Informazio-trukeek, eta ordezkaritza- eta informazio-kateek ez dute funtzionatzen.
22	Ikastetxeko eginkizunetan adostasunez eta koherentziaz jokatu da					Bakoitza berea egiten saiatzen da inprobisazioagatik eta interes kontrajarriak izaten direlako askotan.
23	Ikastetxean adostuta dago familia, irakasle, irakasle eta zerbitzu-taldeen zein administrazio langileen artean nola erlazio-taldeen garen eta tratua beti errespetuzkoa izango dela.					Ikasleen, irakasleen, familien eta AZP-ren (administrazio eta zerbitzu-taldeen pertsonala) arteko erlazioan ez dago harmoniarik, ezta errespetuzko tratuerik ere.
	EMOZIOAK, SENTIMENDUAK ETA IDENTITATEA					EMOZIOAK, SENTIMENDUAK ETA IDENTITATEA
24	Ikastetxean gaizki sentitzen den pertsona lagundu nahi izaten da					Gatazkak ez badigu zuzenean eragiten ez gara ezertan sartzen.
25	Ikastetxean eskola-komunitateko pertsona guztiei harrera egokia egiteko, errekonozimendua adierazteko eta esperientziak trukatzeko balio duten jarduerak antolatzen dira.					Esperientziak trukatzeko edo elkar ezagutzeko jarduerak ikasgelan bertan egiten dira. Ez da gelatik aparte beste ezer antolatzen.
26	Ikastetxean edozein pertsonak dauka aukeratzeko eta erabakiak hartzeko ahalmena berari dagozkion esparruetan.					Ikastetxeko funtzionamendu erreala ez da demokratikoa eta oso zaila da norberak bere erabakiak hartzeko aukera izatea.
27	Ikastetxean pozik gaude dagoen lan-giroarekin, ikasteko dagoen aukerarekin eta ikasketetan arrakasta izateko dauden oportunitateekin.					Eskola-porrota eta pesimismoa dira nagusi ikastetxean.
	IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUAK	4	3	2	1	IRAKATSI ETA IKASTEKO PROZESUAK
28	Ikastetxean uzten da espazioa eta denbora ikasleek elkar ezagutzen, euren artean erlazio-taldeen, errespetuz tratatzen, euren emozioak identifikatzen, taldean lan egiten ikasteko, hau da, betiko ikasgaiez gain, gizarte-ara egokian bizi ahal izateko beharrezkoak diren konpetentziak lantzeko.					Eskolak ezin die erantzun gizarteak inposatzen dizkion hezkuntza-behar guztiei. Bestela, ikasleek bereganatu behar duten edukien kopurua murriztu egingo litzateke eta lan hau ere eskatzen zaio eskolari.
29	Ikastetxean konpartitzen den ideietako bat zera da, ikaslearen zaletasun eta interesetatik gertuago dauden programazio eta metodologiek lagundu egiten diotela eguneroko lanean, motibatu egiten dutela, alegia.					Ikastetxean pentsatzen da, apaindu nahi dugun guztia apainduta ere, asko kostatzen dela zenbait gauza ikastea eta, dibertigarriak ez badira ere, astindua eman behar diegula eta behin eta berriro errepikatu.
30	Ikastetxean ikasleek parte hartzen dute ikasteko jarduerak aukeratzeko eta diseinatzeko garaian.					Ikastetxean irakasleak dira ikasketaren arduradun nagusiak eta ikasteko jarduerak programatzea beraie dagokie.
31	Ikastetxe honetan, iturri ezberdinetatik datorren informazioarekin lan egitea interesgarria iruditzen zaigu. Izan ere, ikasleen pentsamendu kritikoa garatzen laguntzeko balio duela uste dugu.					"Ezagutza seguru eta egokia lortzeko hobe da informazio eta iritzi anitzak ez ematea", hauxe da ikastetxean pentsatzen dena.
	IRAKASLAN-ESTILOA	4	3	2	1	IRAKASLAN-ESTILOA
32	Ikastetxean taldearen garapena zaintzen da, denon artean konpartitzeko eta elkarlana bultzatzeko lana egiten da.					Ikastetxean ikasteko garaian bakoitzak berea egiten du eta aurrera egingo du bere gaitasun eta lan egiteko daukan ahalmenari esker.
33	Ikastetxean kooperazio-lana baliagarria dela pentsatzen da guztion ikasketa prozesua hobetzeko eta harreman egokiagoak lortzeko					Ikastetxean talde-lana oso zaila dela ikusten da ikasleen lan erritmo desberdinetatik, denbora asko behar delako, irakasleak kontrolatzeko eta bakoitzaren lana baloratzea eta ebaluatzea zaila delako.
34	Ikastetxean heziketa lanean diharduten pertsonek artean konfiantza dago eta horrek segurtasuna ematen digu.					Ikastetxean heziketa lanean ari diren pertsonek artean mesfidantza denez nagusi, besteen aurrean egoera ahulean sentitzen gara eta horrek beldurra ematen digu.
35	Ikastetxean pertsonak baloratu eta kontuan hartzen dira.					Ikastetxeko harremanetan kexatu eta jendea kritikatzeko joera nagusitu da.
36	Ikastetxean nabarmena da irakasleek erakusteko daukaten gogoia eta ilusioa. Baita ikasleek ikasteko egiten duten ahalegina ere.					Geletan monotonia da nagusi eta nabarmena da irakasleek zein gogoia eta ilusio gutxi daukaten irakasteko eta ikasleek ikasteko. Horregatik, erraz etsitzen dugu zailtasunen aurrean eta eskolara gogorik gabe etortzen da jendea.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

.....

5.2) Puntuazioa ondoko grafikora eraman. Hori ikastetxearen profila izango litzateke, zure ustez.

	Partaidetza					Emozioak, sentimendua k, identitatea				Irakatsi-ikasteko prozesuak				Irakaslan-estiloa				
4																		
3																		
2																		
1																		
	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36

5. 3) Grafikoa aztertu.

	zenbakiak	oharrak
Puntu indartsuak (praktika onak/laguntzak)		
Ahultasunak (egoera problematikoak)		
Hobetzeko elementuak, eraldatzeko potentzialtasun handiena dituenak.		
Hobetzeko elementuak, hasteko egokienak direnak ikastetxerako.		

2. partea: GATAZKAK ETA ONDOEZAK. ZERGATIEN IDENTIFIKAZIOA.

5. 4) Aurreko hausnarketa prozesuan aurkituriko ondoezak eta gatazkak idatzi eta beren egiazko zergatiak bilatu.

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

	Gatazka eta ondoezak	zergatiak	gertakarien maiztasuna			
			gutxitan	noizbait	askotan	ohikoa
Partaidetza						
Emozioak, sentimenduak eta identitatea						
Irakatsi-ikasteko prozesuak						
Irakaslan-estiloa						